

## HITZARGIAK – Elkar argitzen duten hizkuntzak

### Mintzanet

#### INFORMAZIO OROKORRA

DATA: 2016-04-19

1	<b>Izena</b>	Mintzanet
2	<b>Hizkuntza</b>	Euskara
3	<b>Lan-arloa</b> (hezkuntza, komunikazioa, irakaskuntza, aisia, administrazioa...)	Euskararen erabilera
4	<b>Kontakturako helbidea edo telefonoa</b>	<a href="mailto:crisrina@mintzanet.net">crisrina@mintzanet.net</a> <a href="mailto:ainara@mintzanet.net">ainara@mintzanet.net</a> 943 504 206
5	<b>Sare sozialetako kontaktuak</b> (Webgunea, Facebook, Twitter...)	Webgunea: <a href="http://www.mintzanet.net">www.mintzanet.net</a> Facebook: <a href="https://www.facebook.com/Mintzanet-140185096145441/">https://www.facebook.com/Mintzanet-140185096145441/</a> Twitter: @mintzanet

#### PRAKTIKA EGOKIAREN DESKRIAPENA

1	<b>Praktikaren azalpena</b>	Mintzanet
2	<b>Praktikaren azalpenaren laburpena</b>	<p>Mintzanet euskara on line eta doan praktikatzeko tresna bat da. Euskara ongi dakien pertsona eta praktikatu nahi duena elkartzen ditugu. Praktika librea da, eta A2 maila aurreratua izatea da gutxieneko baldintza.</p> <p>Bere egitasmoaren helburua euskaraz nahi adina jarduteko aukera ez duen pertsona orori etxetik atera gabe eta komeni zaion ordutegian euskara praktikatzeko modua ematea da. Hori bermatzeko, euskaraz jardun nahi duten guztiek, edonon daudela ere, euskaraz nahi adina aldiz hitz egiteko aukera dute <a href="http://www.mintzanet.net">www.mintzanet.net</a> webgunearen bidez. Egitasmoa guztiz doakoa da eta ezinbesteko bi oinarri ditu: bidelaguna eta bidelaria. Bidelaguna euskaraz dakien eta beste bati laguntzeko prest dagoen euskalduna da, eta, bidelaria, berriz, euskara praktikatu nahi duen ikaslea. Mintzanet proiektuak munduan zehar barreiatuta dauden euskaldunei zein Euskal Herrian bertan daudenei euskaraz jardun ahal izateko doako aukera ematea du helburu hasiera-hasieratik. Hori bai, normala den bezala, elkarren arteko komunikazioa bermatzeko gutxieneko euskara maila bat izatea lehenesten da betiere. Ez dauka helburu didaktikorik, ez da irakasle-ikasle harremana, praktika librea baizik.</p>
3	<b>Aurrekariak</b> (Inplementazioa burutzeko motibazioa, identifikaturiko beharrak)	Aurrez aurreko Mintzapraktika egitasmoak aspalditik dabilta martxan. Interneten ez zegoen horrelako aukerarik eta on line izateak hainbat abantaila ditu: ez dago denbora mugarik ezta geografikorik ere. Gainera, aurrez aurrekoan ez bezala, saioetan bidelagun bakarra eta bidelari bakarra aritzen dira, bestela izanda batzuk isilik geratzeko aukera egongo litzatekeelako; hala, praktikatu nahi duenaren aurrerapausoa oso handia da

4	<b>Helburuak</b>	Jendeak ahalik eta gehien euskara praktikatzeko tresnak ematea. Ahalik eta erraztasun gehien edukitzea euskara praktikatu ahal izateko. Hau da, euskaldunen komunitatea handitzea. Ikasketekin edo euskararen erabilera ahaztu xamar duten beharrekin bateragarria den praktika librea, ordu erdiko eta ordu eta erdi arteko saioetan (gutxienez, astean behin izatea aholkatzen dugu)
5	<b>Eragin esparru nagusia eta albokoak</b>	Euskaraz hitz egiteko aukera eskaintzeaz aparte, bestelako ondorio positiboak ere baditu Mintzanetek: mugak gainditzea (distantzia, bakartze linguistikoa edota partaideek izan ditzaketen arazo fisikoak edo denbora eragozpenak), askotariko euskaldunen arteko elkar ezagutza sendotzea, eta, azken batean, euskaldun kopurua handitzea. <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskararen erabilera</li> <li>• Hizkuntzaren transmisioa</li> <li>• Kulturaren transmisioa</li> </ul>
6	<b>Erakunde laguntzaileak eta horien lan-arloak</b>	Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala, HABE, Euskaltzaleen Topagunea, AEK, EHU, Eusko Ikaskuntza, NUP, aurkezpenak egin ditugun herrietako udalak. Betiere Euskara arlotik eta Ongizate arlotik
7	<b>Inplementazio-epea</b>	Ez du epe mugarik. 2013an hasi zen eta helburua erabiltzaile-kopurua handitzen joatea da, ahalik eta pertsona gehienei zerbitzu hau emateko

## INFORMAZIO GEHIGARRIA PRAKTIKA EGOKIEN FITXA

8	<b>Hedapena</b> (eragiten dien pertsona kopurua, barnekanpo hedapena...)	Une honetan, 350 erabiltzailetik gora daude Mintzaneten parte hartzen. Informazioa, berriz, erakunde guztiei eta herritarrei ematen diegu aurrez aurreko aurkezpenetan, eta, dagoeneko 60 bat egin ditugu Euskal Herrian zehar. Gure ustez, euskara ikasten ari den edonork edo bere euskara-maila hobetu nahi duen edonork har dezake parte, bai Euskal Herrian eta bai munduko edozein bazterretan. Euskal Herriko erabiltzaileak gure % 80 dira gaur egun. Eta proiektuak ez dauka mugarik kopuru aldetik, are gutxiago, Euskal Herrian bertan 30.000 lagun eta atzerrian beste 2.500 lagun euskara ikasten ari direla jakinda
9	<b>Inbertsioa</b> (dirutan, denboran, pertsonetan, bestelako baliabideak...)	Lehen aipaturiko erakunde publikoek urteko aurrekontuaren % 40 osatzen dute, eta, gainerakoa, maramara* taldeak finantzatzen du
10	<b>Lortutako emaitzak</b>	Esan bezala, une honetan, 350 erabiltzaile daude Mintzaneten parte hartzen. Bidelariak, euren euskara maila (ulermena eta mintzamena) hobetzea azkar lortzen dute (askotan, mintzamen maila aurreratu egiten zaio gramatika ezagutzari), baita lotsa kentzea ere. Bestalde, bidelagunek euskarari bultzada eman diote modu erraz batean. Bikoteak oso egonkorak dira eta leialtasun handia diote proiektuari. Gainera, bidelari hasitako askok bidelagun jarduten dute hasi eta urtebetera.  Horrez gain, bidean beste proiektu batzuk sortu dira: EHUko ikasleek aukera askeko kredituak lortu ahal dituzte bidelagun izateagatik, adinekoen egoitzatan abian jarri da eta dagoeneko 30 egoiliarrek parte hartzen dute, etab...
11	<b>Dokumentazioa erreferentziarako materiala</b>	Bere ahotan: <a href="http://mintzanet.net/category/mintzanet-bere-ahotan/">http://mintzanet.net/category/mintzanet-bere-ahotan/</a>



12

**Intereseko informazio  
gehigarriak**

Hitzaldi irekiak: <http://mintzanet.net/category/hitzaldi-irekiak-2/>

